

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 29an hartutako erabakiaren laburpena: 2019an gazteei zuzendutako proiektu eta zerbitzuak bideratzeko diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS (Identif.): 450500

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Gazteei zuzendutako proiektu edo zerbitzuak sortzen dituzten eta Gasteizko udalerrriaren esparruan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, legez eratuta badaude eta Eusko Jaurlaritzaren Elkartea eta Erakundearen Erregistro Nagusian eta Herritar Erakundearen Udalerriaren Erregistroan izena emanda badaude.

Bigarrena. Helburua

2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean bideratuko diren proiektuak antolatu eta gauzatzetik sortzen diren gastuak ordaintzen laguntzea da deialdi honen xedea. Laguntza horiek jasotzeko, proiektu horien helbururik behinena gazteei gizarteratze aktibo eta parte hartzailea ahalbidetzen dieten alternatiba eta baliabide espezifikoak eskaintzea izan beharko da.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 29an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 25.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hilabete laburpen hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen lanegunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 29an

Alkatetzaren eta Udal Harremanen Saileko zuzendaria
ESTIBALIZ PEREDA SAGREDO